

AZTERKETA-EREDUA:
ATOMOA - TAULA PERIODIKOA - LOTURAK - ERREAK. ORGANIKOAK

ARIKETA #1

5 elementuren nukleotako protoi-kopuruak hauek dira:

V=9, W=16, X=17, Y=19, Z=20




Adierazi, erantzuna justifikatuz, elementu horietatik zein den

- a) metal alkalino bat
- b) elektronegatiboena
- c) ionizazio-potentzial txikienekoa
- d) balentzia ionikoa -2 duena
- e) W eta Y elkartzean emango duten substantzia (formula eta substantzia-mota)

ARIKETA #2

Ondoko molekulak aztertu adieraziz:

- a) karbono bakoitzaren hibridazio-mota
- b) lotura-motak (sigma ala pi diren)
- c) angeluak



ARIKETA #3

1-butanolaren ondoko erreakzioak idatzi edota lorturiko produktuak izendatu:

- a) errekuntza
- b) oxidazio leuna
- c) deshidratazioa
- d) azido metanoikoarekin duen erreakzioa
- e) 1-butanoletik butanonara pasatzeko prozesua

ARIKETA #4

Potasio kloruro eta potasio ioduro izeneko konposatuek ondoko sare-energiak dituzte: -699 eta -632 kJ/mol, hurrenez hurren. Azaldu zergatik duen lehenak sare-energia baxuagoa, eta adierazi zein izango den egonkorrena.

ARIKETA #5

Definitu eta bereiztu:

- a) orbita eta orbital elektronikoak
- b) sigma eta pi loturak
- c) alkohol primario, sekundario eta tertziarioen oxidatzeko aukerak
- d) poliadizioa eta polikondentsazioa
- e) n eta l zenbaki koantikoak